

ATERKI FULL BODY

BALOREZKO PROPOSAMENA

Euri asko eta haize handia dabilen egunetan betiko aterkiek edo orain arte ezagutzen ditugun aterkiek ez dute behar bezala gorputza estaltzen eta busti bustita amaitzen dugu eguna. Horregatik, erabaki dugu aterki bat sortzea, baina ez aterki arrunt bat, baizik eta, lurrera iristen den aterki bat, euritik ondo babesteko. Pertsona askok, gorroto du, haizea eta euria nahasten direnean busti bustita egotea eta gure produktua pertsona haientzat zuzenduta dago. Horregatik gure produktua desberdina eta berezia da; gure aterkiak plastiko bat erantsita du, euritik goitik behera babestuta egoteko. Tamaina eta kolore desberdineko aterkiak izango dira, jende gehiago erakartzeko eta gure produktua eskuragarriagoa bilakatzeko.

Gure aterkiaren funtzioei esker, pertsona batek bustitzea ekiditzen du eta gainera, gorputz osoa babesten du. Oso aproposa da haizea dabilen egunetarako. Normalean haizea eta euria dagoenean, aterkiak erabiltzea nahiko deserosoa da, askotan ez zaituzte babesten eta gainera sarritan apurtzen dira. Baina gure produktua, hauskaitza da eta daraman plastikoak euria eta haizearen nahastetik babesten zaitu.

Horrek esan nahi du, zure etxera guztiz bustita heltzearen arazoa konpontzen duela, batez ere egun haizetsuetan. Bizi garen lekuan, euriak ugariak dira eta gure produktua erabiltzea euritik babesteko oso aukera ona izango litzateke. Beste aldetik, gure aterkiaren prezioa nahiko merkea da eskaintzen duen guztiarekin konparatuz.

Diseinuaren aldetik era askotako aterkiak ekoizten ditugu, kolore eta inprimatu askotakoak . Aterki pertsonalizatuak ere egiten ditugu, bezeroaren gustura. 2 euro garestiago izango dira eta entrega epea apur bat luzatu daiteke. Ideia aproposa iruditu zitzaigun, uste dugulako jende askok erabili dezakeela egun euritsuetan.

